

HORRA MARI DOMINGI!

Horra Mari Domingi,
begira horri.
gurekin nahi duela
Belena etorri.
Gurekin nahi badezu
Belena etorri,
atera beharko dezu
gona zahar hori.

Atoz! Atoz!
zure bila nenbilen ni.(bis)
Atoz, goazen, adora dezagun
Belenen jaio dan
haur eder hori
haur eder hori.

BIS)

HATOR HATOR

Hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
Gabon gaba ospatuzeko
aitaren (e)ta amaren onduan.
Ikusiko dek aita barrezka
ama (e)re poz atseginez.

Eragiok mutil aurreko danbolin horri,
gaztainak erre artian,
gaztainak erre artian,
txipli, txapla, pum.
Gabon gaba pozik igaro daigun

BIS

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.

Aditu duanian
Jesus jaio dala,
laisterka etorri da
berri ematera.

Horra! Horra!
Gure Olentzero
pipa hortzian duela
eserita dago
kapoiak ere baitu
arrautzatxuakin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.

Olentzero buru haundia
entendimentuz jantzia
bart arratsean
edan omen du
hamar arruko zahagia. } BIS

Ai urde tripa haundia } BIS
tralara la la ...



ELUR MALUTAK

Badatoz beltzak, badatoz zuriak
elkarrekin eskutik lotuta
badatoz umeak ametsez beteta
zaharren bihotzetan oroitzapenak

*Elur malutak zerutik
izar bat dir-dir zeruan,
Belenen munduko argia
jaio da Gabon gauean* } BIS

Badatoz gaixoak, badatoz txiroak
sufritzen dutenentzat bakea eskatuz
behartsu guztiak zorionez beteak
elkarri begira maiteminduak.

Badatoz jakintsuak, jende xumea
baserritarrak bertsotan dabiltzanak
kantari datoz musikazaleak
pailazoak dantzaz barrea eraginez.

ETXE HONETAN

*Berriz ere bilduko gara
sutondoan denok batera
-Mari Domingi noiz dator, ama?
txikien betiko galdera.*

Gabon gauean elkartuta
Senide, herritar, lagunak
etxe honetan sartzen dana
etxekotzat hartuko da. } BIS

*Lehen egiten zen antzera
hauxe da gure herriko ohitura
Badator urte amaiera
min denak boteaz sutara*

Gabon gauean elkartuta
Senide, herritar, lagunak
etxe honetan sartzen dana
etxekotzat hartuko da. } BIS

*Guretzat hauxe da handiena
Daukagun altxorrik ederrena
Amonak gorde zun euskara
gaur bilobak eginaz berbera*

Gabon gauean elkartuta
Senide, herritar, lagunak
etxe honetan sartzen dana
etxekotzat hartuko da. } BIS

OLENTZERO TA ASTOA

Olentzero ta astoa basora joan dira
bidean galdu eta haserretu dira.

Olentzerok astoai belarritik tira
astoak Olentzeroi praketatik tira.

Tira ta tira elkarrenak dira
Tira ta tira konponduko dira.

Olentzero ta astoa basora joan dira
bidean galdu eta haserretu dira.

Olentzerok astoai buztanetik tira
astoak olentzeroi gerrikotik tira.

Tira ta tira elkarrenak dira
Tira ta tira konponduko dira.

Olentzero ta astoa basora joan dira
bidean galdu eta haserretu dira.

Bidean galdu eta haserretu dira.
Bidean galdu eta haserretu dira.

ZATOZ BA, OLENTZERO

Udazkena badoa,
badatoz Gabonak.
Izango ote dira
denontzako onak? } BIS

Elkarrekin ospatuz
algara ta broma,
senide ta guraso
baita aiton-amonak } BIS

Santa Klaus, Papa Noel
Errege Magoak.
Denontzat atseginak,
baina urrutikoak. } BIS

Zatoz ba, Olentzero!
zu zara hemengoa,
zure zain dauzkazu eta
umeen gogoak. } BIS